



HABEren IKASBIL atariaren erabilera: datuak, iritziak eta analisisia

*Mikel Dorronsoro**

1.- Sarrerakoa

1.1 HABE erakundearen Interneteko atariak

HABE erakundeak hiru web-atari ditu, dagozkion zerbitzuak burutzeko; izan ere, atari bakoitzak helburu zehatzak ditu, eta bakoitzaren funtzioak ongi mugatuta daude. Ikus ditzagun banan-banan:

1. **www.habe.euskadi.net.** Atari honetan, informazio instituzionala eskaintzen zaio herritarrari: araudia, berriak, egiaztatze-deialdietako argibideak, HABEren egiturari buruzko informazioa eta, batez ere, ikasle, irakasle eta euskaltegien datu akademikoen kudeaketa. Eusko Jaurlaritzaren atari nagusiaren atal bat da, eta, teknologikoki ere, hortxe dago barneraturik.
2. **www.ikasten.ikasbil.net.** Ikastaroak Sarean eman edo Sarearen bidez laguntzeko ataria da. Moodle LMS (edo irakaskuntza kudeatzeko sistema) ezagunaren gainean dago eraikita, eta, 2013ko udaz geroztik, 2.4 bertsioan eta EJIIE ko zerbitzarietan. *Ikasten* plataforma horretan dituzte ikastaroak bai euskaltegiek, bai Euskal Etxeek, baita Etxepare institutuak kudeatzen dituen atzerriko unibertsitateek ere.

* mi-dorronsoro@habe.org

3. **www.ikasbil.net.** Euskara ikasten eta irakasten ari diren herritarrei zerbitzu didaktikoak emateko sortutako ataria. Ikasgelako taldean nahiz barka euskara ikasteko interesgarria den eduki anitza dago bertan, hala nola irakurgai, entzungai, bideo, ataza, HABEren liburutegirako sarrera, hasi berrientzako materiala, denbora-pasak, euskaltegiei buruzko informazioa, argitalpenak eta abar.

1.2 IKASBIL atariaren jatorria eta bilakaera

2002. urtean, Internet sarea gizartean indarra hartzen hasi zen garaian hain zuzen, HABEk zituen bi zerbitzu bat eginik sortu zen *Ikasbil*; *habe.org* eta *Dokumentu Biltegia* ziren bi atari horiek. XXI. mende-hasierako urte horietan eman zen Internet sarearen eztaidak lagunduta, zerbitzu hauek zabalkunde ona izan zuten euskaltegiatako irakasleen eta ikasleen artean.

Habe.org ataria HABE paperezko aldizkariaren osagarri zen, eta bietan argitaratzen ziren eduki asko; gainera, paperean argitaratu ezin ziren bestelako edukia ere bazituen. *Dokumentu Biltegia*, berriz, irakasleei komunikabideetako pasarte interesgarriak ikasgelan erabiltzeko prestatuta emateko sortu zen. Bai idatzizkoak, bai entzutekoak, baita bideoak ere. Biltegi hau erabilgarri izateko “etiketa-sistema” eta bilatzaile egoki batez osatua zegoen.

Bestalde, munduan asko ugartzen ari ziren beste hizkuntza batzuk ikasteko web-atariak (ingeleza, batez ere): *BBC Learning English*, *British Council* eta abar. Horiek, jakina, bide berriak erakusten zituzten hizkuntzen ikaskuntzan.

Honela, *habe.org* eta *Dokumentu Biltegia* bateratu, eta IKASBIL.NET ataria sortu zen. Bien eduki guztia barneratu zen bertan, eta edizio-lanerako talde handiagoa jarri zuen HABEk.

2008. urterako, *Ikasbil* ataria ondo finkatuta zegoen euskara ikasten eta irakasten ari den sektorean. Hala ere, bazituen muga batzuk; bi hauek nagusiki: erabiltzaileak ezin zuten esperientzia pertsonalizaturik izan, ez zegoelako erabiltzaile-konturik sortzerik, batetik; atazak eskaintzeko baliabide mugatua zen, bestetik. Beraz, berrikuntza burutzeko aurrelanak egin ondoren, 2010-2011 urteetan guztiz berritu zen *Ikasbil*. 2011ko abenduan egin zen *Ikasbil* berriaren aurkezpena, eta 2012ko maiatzeko guztiz operatibo zegoenez, *Ikasbil* zaharra itzali egin zen. Harrezkero, hainbat berrikuntza eta hobekuntza egin dira *Ikasbil*en. Baina egitura nagusiak bere horretan jarraitzen du. (Lopetegi eta Isasa, 2013)

1.3.- Erabilitako informazio-iturriak eta lanketa

*Ikasbil*erako HABEk duen lantaldean beti bilatu izan ditugu zerbitzua hobetzeko ideiak emango lituzketen datu eta iritziak. Euskaltegiatako irakasleekin ditugun harremanen bidez, bagenekien harrera ona zuela ikasle eta irakasleen artean. Tarteke iristen zitzaizkigun aholku eta eskaera bereziak ere. Bestalde, bagenituen zerbitzari-mailako datuak, bisitak eta deskargak zehazten zitzaizkigutenak. Hala ere, inkesta baten bidezko erabiltzaileen iritzi-bilketa sistematikoa egitea proposatu zitzaion HABEren zuzendaritzari, eta halaxe egin 2013ko azarotik abenduko erdira arte, horretarako HABE ataria baliatuta.

Artikulu antolatzeke, bi alderdi nagusi bereziko ditugu: erabiltzaileak eta *Ikasbileko* edukia. Bakoitzari buruzko alderdi edo ikuspegi anitz agertuko dira, baita denboran izandako bilakaera ere.

1.3.1 Zerbitzarietako nabigazio-datuak

Arestian esan bezala, zerbitzarietako trafikoaren analisia izan ohi da web-atarietan zer gertatzen den jasotzeko modurik fidagarriena. Ikasbil atarian bi kanal ditugu: batetik, Ikasbilek gordetzen dituen deskarga-kopuruak eta erabiltzaile-kontuak, eta, bestetik, *Google Analytys* zerbitzuak ematen dizkigunak.

Azken zerbitzu honetan, erabiltzaileek egindako “klik” bakoitzaren lortatza gordetzen da, eta oso informazio esanguratsua gordetzen da; adibidez, bisitak, ikusitako orrialdeak, bisitariaren jatorria, bisitariaren ordenagailuaren ezaugarriak, bisitarien fidelotasuna, bilaketa gako-hitz guztien zerrenda, bisita bakoitzaren iraupena eta batez bestekoa, edota bisitariak orrialdeen artean egiten duten ibilbidea.

Gainera, datu guztiak denbora-lerroan kokatuta gordetzen dira. Honela, adibidez, jakin genezake Ikasbileko erabiltzaileak urtaro jakinetan ugariago direla edo zein bilaketa egiten duten garai jakinetan.

1.3.2 IKASBILeko erabiltzaileei inkesta

Inkestako galderak bi motatakoak ziren; erantzun objektiboko galderak —adibidez, “euskaltegiren batean ari zara?” edo “erabiltzaile-kontua sortua duzu Ikasbil atarian?”— eta balioestea zutenak helburu —“ataza eta sekuentziak egokiak iruditzen zaizkizu? Balora ezazu 0-5era”, esaterako—. Guztira, 28 galdera eta testu libreko eremu bat zeuden inkestan. Bukaeran, 805 erantzun jaso ziren.

Inkesta horren erantzunetan, ordea, arazotxo bat antzeman genuen: hainbat erantzunetan, nahasi egiten zituzten *ikasten.ikasbil.net* ikasteko plataforma eta *ikasbil*. Antza denez, erabiltzaile guztientzat ez dago argi bien arteko aldea; bestalde, izenak ere nahasmena sortzen du. Baina, erantzun-kopuru handi samarra izanik, uste dugu esanguratsuak direla ondorioak.

2.- Ikasbileko erabiltzaileak edota bisitariak

2.1 Ikuspegi orokorra

Ez dugu datu zehatzik erabiltzaileen adin eta sexuaz; bai, ordea, horien jatorriaz eta, interesgarriagoa dena, ikasle edo irakasle diren. Espero zen bezala, ikasleak gehiago dira erabiltzaileen artean. Hala ere, Ikasbil irakasle bakoitzeko 3 ikasle dabilta, eta, euskaltegietako datuen arabera, irakasle bakoitzeko 27 ikasle daude HABEren sarean. Beraz, irakaslea da erabiltzaile fidelena, baina ikaslea da ugariena. Biak hartu beharko dira kontuan, edukia sortu eta banatzerakoan. Horrez gain, euskaltegian dabilta erabiltzaile gehienak, baina bada audientziarik hortik kanpo ere.

“Nola izan duzu Ikasbil atariaren berri?” galderari emandako erantzunen bidez, garbi azaltzen da Ikasbil esparru akademikoaren bidez zabaltzen dela. Hala ere, honekin kontrastean, datu bat ere badago: Google bilatzailean euskarazko hitzak bilatzean, Ikasbil lehen postuetan agertzen da oso maiz; hau da, *pagerank* altua du bilatzailean. Beraz, pentsa liteke hortik datorrela nabigazio-kopuru handi samarra izatea.

Zerbitzarietako datuek 2013an gertatutakoaz aurreko hori baieztatzen dute, nola-bait esateko.

Datu horien arabera, bilatzaileen bidez (% 50) heltzen dira bisita asko Ikasbilera, eta Google da kanpoko bilatzaileen artean gure inguruan zabalduena. Horrela etortzen diren bisitariak edozein orrialdetara jotzen dute, nagusiki harrera-orrialdera etortzen badira ere, Googlek ikasbileko eduki guztia indexatuta baitu. Google-ri buruz esan beharra dago HABEK ez duela inolako iragarki-kanpainarik egiten bilatzaile horretan, ez du *adwords* modukorik erabiltzen. Beraz, gure atariaren berzko indarraren adierazle da Google bilatzailean euskaraz egindako bilaketan zerrendan goi samarrean agertzea Ikasbil.

Horrezaz aparte, leku berezia dute erabiltzaileek gordeta izatea (% 25) —Ikasbil marka dagoeneko nahiko ezaguna da gure sektorean, eta pentsatzekoa da erabiltzaile askok bere gogokoan artean izango dutela gordeta atariaren helbidea—, eta HABEren beste bi atariak ere erabiltzaile dezente bidaltzen dituzte. Sare sozialen bidez heltzen den bisitaria ez da oso ugaria: Twitterrek, lehena izanik, % 0,53 bakarrik bidaltzen ditu. Kontuan hartu behar da Ikasbileko edukiak berriro ahala, twitter, Facebook eta Google+ sare sozialetan automatikoki argitaratzen direla (Lopetegi eta Isasa, 2013: 62); hala ere, aztertu beharko da zertarako erabiltzen diren horrelako guneak gure inguruan (“jolaserako”?, albisteak zabaltzeko?). Euskalduntze-munduko beste eragileen webguneetatik ere erabiltzaile gutxi iristen dira Ikasbilera; AEK erakundearen *egela.aek.org* ataritik, esaterako, % 0,87. Agian, ahalegin handiagoa egin beharko litzateke Ikasbil ataria presente egon dadin gure esparruko edota gure inguru geografikoko web-atari nagusietan.

2.2 Bisitak

2.2.1 Bisitak 2013an eta eboluzioa

474.665 bisita jaso zituen Ikasbil atariak 2013. urtean.


Astez asteko bisitak adierazten ditu 1. irudiak. Bistan dago urtaroaren araberakoa dela bisita-kopurua: udako, neguko eta Aste Santuko oporretan nabarmen egiten du behera.

1. irudia:




2. irudian, berriz, azaroko aste bat erakusten da. Lan-aste eta asteburuko joerak ikusten dira bertan; larunbat eta igandeetan bisita gutxiago jasotzen da, baina beharrezko joera ostiral arratsaldean hasten da; igande arratsean, ordea, bisita-kopuruak gora egiten du berriro. Joera hauek astez aste errepikatzen dira.

2. irudia:



3. irudian islaturiko bi urteko bisiten eboluzioak erakusten du Ikasbileko bisitakopurua oraindik ere hazten ari dela, nahiz eta atariak 10 urte izan jada.

3. irudia:



Urte barruko bilakaera antzekoa bada ere, 2013ko % 13,6 gorago dago (tarte hori hartu da alderatzeko moduko bi epe berdin edukitzeko). 297.665 bisita 2013ko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra, eta 262.014, 2012ko epe berean.

Datu honen garrantzia neurtzeko, interesgarria da jakitea beste zerbitzu batzuk nola dabiliz. Ikasten plataforman, adibidez, beheranzko joera azaltzen da epe berean, eta, ondorioz, % 0,44 bisita gutxiago jaso ditu 2013. urtean.

Goranzko joeraren azalpen gisa, pentsa liteke atarian egin diren hobekuntzek eta bertan txertatu diren eduki berriek erakarri dituztela bisitariak. Edukiak aztertzeko atalean helduko diogu berriro ere gai honi.

2.2.2 Bisitarien jatorria

Zerbitzariko datuak aztertuta, zer edo zer jakin genezake bisitarien jatorriari buruz. Batetik, zein herrialdeetatik datozen eta, bestetik, zein hizkuntza erabiltzen duten Internet nabigatzailean.

2013. urteko datuek argazki hau ematen digute, bisitarien herrialdeei buruz:

1. taula:

Lurraldea	Bisitak	
Espania	462.226	% 97
Frantzia	4.370	% 0,92
Estatu Batuak	1.724	% 0,36
Erresuma Batua	713	% 0,15
Alemania	684	% 0,14
Argentina	608	% 0,13
Zehaztu gabe	547	% 0,12
Italia	295	% 0,06
Mexico	263	% 0,06
Txile	257	% 0,05
Guztira	474.665	% 100

Begirada zehatzagoak datu interesgarriagoak uzten dizkigu, eskualdekoak (hiri eta herrien izenak agertu arren, eskualdea adierazten dute)

2. taula:

Bilbo	135809	Bartzelona	8936	Irun	2253
Donostia	81872	Areeta	6235	Leioa	2240
Gasteiz	57227	Urnieta	6182	Beasain	2197
Zehaztu gabe	46083	Errenteria	3190	Zarautz	2196
Iruña	29487	Algorta	3095	Azkoitia	2089
Eibar	14024	Basauri	2864	Laudio	1681
Madril	12960	Arrasate	2862	Bermeo	1485
Zamudio	9912	Durango	2755	Santander	1442

2.2.4 Nabigatzeko erabiltako hizkuntza

Deigarria da ikustea zein hizkuntza duten nabigatzaileetan lehenetsita erabiltzaileek. Ondoko diagraman ikus daitekeenez, gaztelania da nagusi.

2. taularekin alderatuz gero, ikusten da bisiten % 84 Euskal Herrikoa dela; baina nabigatzaileen hizkuntza gaztelania da nagusiki, hala ere. Ondorioak uste baino larriagoak izan daitezke, aukera horren eraginez webguneetako orrialdeak automatikoki gaztelaniaz eskainiko baitzaizkio erabiltzaileari, eta horrek, jakina, “elkarrizketa” guztia gaztelaniaz egitera darama bisitariari. Adibidez, IKASBIL atarian 4 hizkuntzatan dago; beraz, erabiltzaile askok gaztelaniazko egitura eta mezuak ikusten dituzte, eduki nagusia euskaraz izan arren.

4. irudia:



2.2.5 Erregistratutako erabiltzaileak, bisitariak eta berretortzea

Ikasbil atariaren 2011-2012 urteetako berrikuntzen ondoren, erabiltzaileei kontua sortzeko aukera eman zitzaien. Erabiltzaile-kontua izatea ez da beharrezkoa atariko eduki guztia ikusi eta irekitzeko; bai, ordea, iruzkinak bidali, norberaren erabilera-historia gorde eta beste erabiltzaileekin taldeak sortzeko (Lopetegi eta Isasa, 2013: 48-51). 2013. urte-amaieran 3.372 erabiltzailek zuten izena emanda atarian.

Zerbitzariko datuen arabera, ordea, 203.529 izango lirateke “bisitariak” 2013. urtean. Hala ere, ez da guztiz fidagarria bisitariak bereizteko zerbitzariak erabiltzen duen sistema, *cookie* delakoetan oinarrituta dago-eta.

Erabiltzaileen fideltasuna neurtu liteke ikusita zenbat aldiz etortzen den erabiltzaile bera Ikasbilera. Zerbitzariaren arabera, hiru erabiltzaile-mota ditugu: maiz etortzen direnak % 25 dira; maiztasun txikiagoko bisitariak % 20; eta, azkenik, bisita gutxi egin ohi dutenak % 55. Inkestan ere galdetu zitzaizen zein maiztasunez etortzen diren erabiltzaileak Ikasbilera. Hauek izan ziren erantzunak: egunero, % 42.18; astean behin, % 31.42; noizbehinka, % 22.24; gutxitan, % 4.16. Ondorioz, erantzun zutenen artean, behintzat, fideltasun handia antzematen da.

2.2.6 Bisiten "sakontasuna"

Zerbitzari-mailan bada beste adierazle interesgarriago bat, *bounce-rate* izena duena ingelesez. Web-atari bat ireki, eta ezer egin gabe, bertako beste orrialderik ireki gabe, alde egiten duen bisitarien ehunekoa adierazten du. % 35 da Ikasbil atarian adierazle horren balioa. Beraz, bisiten kopuru horrek irekitako orrialdea bakarrik ikusten du. Asko da? Interneteko adituen ustez, % 40 kopurutik beherakoak oso ratio onak dira, % 60 ere ontzat ematen da. Beraz, *bounce-rate* bikaina du IKAS-BIL atariak.

2.2.7 Bisitarien hizkuntza-maila

Ikasbilena, Europako Erreferentzia Markoaren arabera (2005) sailkatuta eskaintzen da ikasmateriala; bestela esanda, hauek dira adierazitako mailak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2.

Bestalde, inkestan erabiltzaileari zein mailatan zebilen galdetu zitzaion; hona erantzunak: A1, % 8.82; A2, % 8.46; 1. maila, % 12.50; 2. maila, % 32.54; 3. maila, % 26.65; 4. maila, % 11.03.

Zerbitzariko datuen arabera, mailak datoz bilaketak egiteko beste edozein kontzepturen aurretik.

Labur esanda, inkestaren erantzunek eta zerbitzariko datuek garbi erakusten dute Ikasbileko erabiltzaile gehienak 2. maila ingurukoak direla. Baina beste mailetak ere ugari dira. A1 eta A2 mailetan gutxiago ibiltzea ikaslearen autonomia faltari egotz dakiok, baita Ikasbilena maila horietako ikasmaterial gutxi izateari ere. Eta 4. mailako erabiltzaileak ere gutxi dira; ulergarria, euskaltegietan maila horretan dabilen ikasle-kopurua askoz txikiagoa da-eta.

2.2.8 Bisiten raupena eta ikusitako orrialde-kopurua


Aurreko datuen osagarri da bisita bakoitzaren iraupena jakitea; hau da, lehen orrialdea ireki ondoren zenbat denbora ematen duen bisitariak Ikasbil atarian. Adierazi dugun 2013ko bisita-kopuruari (474.655 bisita, alegia) 06:17 minutuko batez besteko iraupena dagokio.

Bisitek iraupen laburra dutela ematen badu ere, kontuan hartu batez bestekoa dela. Hau da, bisita asko orrialde bakarrekoak dira, ustekabean iristen dira eta berehala alde egiten dute; orrialde bakarreko bisitak laurdena baino gehiago dira. Beraz, bisita interesatuak luzeago egoten dira Ikasbilena. Gainera, biderketa egingo bagenu bisita-kopuruaren eta iraupenaren artean, emaitzak adieraziko liguke 2013. urtean zehar 50.000 ordu inguru egon zela pantailetan zabalik Ikasbileko orrialderen bat. Beste modu batean esanda, egunean 135 orduko arreta erakarri du.

Bisitari bakoitzak zabalitzen dituen orrialde-kopuruari erreparatu badiogu, 3.285.193 orrialde ireki ziren 2013. urteko 474.665 bisita horietan. Hau da, bisita bakoitzean batez beste 7 orrialde ireki ziren.

Jakina, lehen ere esan dugun bezala, ez dute berdin eragiten ustekabeko bisitariak eta fideltasun handikoek; hona hemen datuak grafikoki adierazita 5. irudian.

5. irudia:



Bisiten iraupena eta ikusitako orrialde-kopurua alderatzen dira, berriz, 6. irudian. Bi diagramak alderatuz gero, ondorio hauek ateratzen ditugu, erabiltzaileak di-rela-eta:

- Bada erabiltzaile-mota bat maiz etortzen dena, baina, denbora handirik egin gabe bertan, orrialde gutxi irekita alde egiten duena. Irakasleak edo trebetasun handiko ikasleak izan litezke; ondo ezagutzen dute ataria, eta erraz aurkitzen dute bilatzen dutena. Hauetako askok, gainera, bilatzen dutena aurkitu ondoren, jaitsi eta ordenagailuan gordetzen dute geroago lantzeko.
- Beste batzuek, ordea, luzeago aritzen dira bertan, eta orrialde gehiago zabal-tzen dituzte. Beharbada, atazak burutzen bertan jarduten dutelako pantaila au-rrean, eta hauek orrialde guztiak banan-banan irekitzen dituztelako.



2.9 Laburbilduz

Bost ideia nagusitan laburbilduko ditugu Ikasbileko atariaren bisitarien ezaugarriak:

1. Lanordu eta lan-garaietan etortzen da Ikasbilera erabiltzailea, beraz “ikas-teko” edo “lanerako” lanabes gisa dago ezaugarrituta.
2. Erabiltzaile nagusia oso fidela da, behin eta berriro etortzen da atarira.
3. Ikasleak gehiago badira ere, proportzioan irakasleak gehiago dira. Beraz, irakasleek ikasmateriala eskuratzeko erabiltzen dute, ikasgelara eramateko edo ikasleak bertara bideratzeko.
4. Euskal Herriko eskualde guztietatik heltzen da erabiltzailea, eta biztanle-kopuruarekiko proportzionala da. Hala ere, Ipar Euskal Herri osoak ez ditu Irunek adina bisita sortzen, adibidez. Atzerriko Euskal Etxe eta bestelakoek ere ez dute bisita-kopuru nabarmenik eragiten.
5. Ez da bisita askorik etortzen euskaraz diharduen Interneteko komunitatearen atarietatik, eta, nagusiki, ingurune akademikotik datoz bisitari berriak.

3.- **Ikasbileko edukia**

Atal honetan, atarian dagoen edukiaren gaineko informazioa aurkeztuko dugu, erabiltzaileen artean egindako inkestaren emaitzak eta zerbitzarietan gordetako datuak gurutzatuta. Izan ere, egitura nagusian barneraturik, milaka eduki-ale daude, eta egunero handitzen doan biltegia ere bada Ikasbil.

Edukien eta berorien antolaketaren berri zehatzagoa nahi izanez gero, Lopetegik eta Isasak (2013) ematen dute azalpen xehea. Dena den, aipatzekoa da *dokuteka* eta *atazak* izenekoak direla atariko “izarrak”, bisita gehien jaso eta dokumentu gehien dutenak; 11.000 eta 3.036 ale dituzte, hurrenez hurren, mailaka sailkatuta. *Dokutekari* dagokionez, 3.677 dira entzungaiak, 2.860 bideoak eta 4.463 irakurgaiak.

3.1 Dokuteka

Ikasbileko *Dokuteka* atalean, ikasle eta irakasleek erabiltzeko artikulua idatziak, irrati-takako pasarteak eta telebistakako saio-zatiak eskaintzen dira, egokitzeko beharrezko edizio-lana burututa eta bilagarria egiteko egoki etiketatuta. Aurreko *Dokumentu Biltegiaren* oinordekoa dela esan daiteke, baina egokitzapen asko izan ditu geroztik, eta barnean biltzen ditu HABE aldizkariako artikulua ere bai.


Inkestan, entzungaiak, irakurgaiak eta bideoak 0-5 eskalan baloratzeko eskatu zen; 7. irudian daude jasota emandako balioespen-erantzunak:

Ikusten denez, balioespenak oso onak dira, erantzunen % 70 baino gehiago, bi nota altuenetan kokatzen baitira, bideoetan izan ezik. Bideoek duten nota baxuagoa azaltzeko, erabiltzaileek dituzten bideoak irekitzeko codec arazo teknikoak egon litezke eta, baita ere, Ikasbilen bideo guztiak ez egotea zuzenean eskuragarri, CD euskarrian banatu baitziren.

Ikus dezagun, orain, balioespen bikain hori zer neurritan bihurtzen den dokumentu horiek eskuratzea. Horretarako, zerbitzarietako datuak ikusiko ditugu; aurrerago bezala, 2013. urteari dagozkionak.

- 737.792 orrialde zabaldu ziren *dokuteka*-atalekoak, dokumentuak eta zerrendak; % 22.46 atariko nabigazio osotik.
- 2013. urtean, batez beste, egunero 1.040 dokumentu eskuratu zituzten erabiltzaileak.

7. irudia:




Aipatu ditugun 11.000 dokumentuen artean, 2013. urtean gehien zabaldu zena “Gramatika gaitasuna lantzen”⁷² da; 39.838 bisita izan zituen honek. Horren atzetik doazen hurrengo biek, “Ezkontzea ideia ona”⁷³ (3. maila, irakurmena) eta “Maripili sindromea”⁷⁴ (2. maila, entzumena), 3.282 eta 2.289 bisita izan zituzten. Aipagarria da gehien zabaldutako 100 dokumentuen artean 87.200 deskarga osatzen dituztela.

Guztiei aurrea hartzen dien aipatu “Gramatika gaitasuna lantzen” da 2013. urtean argitaratu zen izen bereko liburuaren bertsio elektronikoa. Liburua 3. mailako ikasleei zuzendua dago, eta 1998an argitaratu zuen Hezkuntza Sailak. Hainbat berrargitalpen izan ditu geroztik, eta, Hezkuntza Sailaren baimena jasota, 2013an Ikasbilen jarri zen osorik; dagozkion azalpenez eta zuzenketa automatikoz osaturiko ariketez hornituta.

Ikasbileko editoreen artean, beti sortzen den zalantza da jakitea zein “gai” den interesgarri ikasle eta irakasleentzat, jakina baita ikaste-prozesuetan aldagai funtsezkoa izaten dela erabiltzen diren testuek (idatziak eta bestelakoak) izan dezaketen motibatzeko ahalmena, ikaslearen interesa pizteko erakargarritasuna. Beraz, inkestan gaiaren inguruko galdera ezinbestekoa zen, eta, honela, aukera mugatu hauek eskaintzen zituen galderaren bidez jaso zen iritzia. Honako hau zen galdera: “Aukera ezazu zure gustuko gaia”, eta aukerako erantzunak ziren: Gaurkotasuneko gaiak, Kultura, Gertaerak eta bitxikeriak, Eztabaidarako gaiak Kirola, Zientzia eta teknologia, Biografiak eta historia, Elkarrizketak, Iritzi-artikulu eta saioak, Eztabaidak, Dramatizazioak (irriti-nobelak, Kerman-saila) (ikus 8. irudia).

Irakasleon betiko susmoa baieztatzen da: oso egokia da gizartean indarrean dauden gaiak erabiltzea, ikasgelara eramanez eta ikaslearen arreta pizteko. Bigarren lekuan, “kultura” gaia dator, eta hau deigarriagoa da, ez baitute mota honetako gaiak arreta askorik erakartzen komunikabideetan. Kirolarekin, ordea, justu kontrakoa gertatzen da, komunikabideetan presentzia handia, baina jendeak inkestan kontrakoa dio. “Politikoki zuzena” den erantzuna ote da?

8. irudia:



Gaia dela-eta, badugu beste neurketa bat, erabiltzaileen interesak erakusten dizkiguna: bilatzailean erabiltzaileek jarri ohi dituzten gako-hitzak. Era guztietako gako-hitzak azaltzen badira ere, urtaroari edo une horretan gizartean indarra hartu duen gaiari buruzko bilaketak nabarmentzen dira. Adibidez, 2014ko urtarillaren lehen 15 egunetan “merkealdiak” eta hitz horren sinonimoak maiz agertzen dira bilaketetako gako-hitzen artean.

Beraz, Ikasbilen eskaintzen den ikasmaterialen unibertso tematikoari dagokionez, gaurkotasunak garrantzi berezia du. Horren aurretik, bilaketetan agertzen diren bakarrak hizkuntza ikasteari buruzko lexiko berezituaren terminoak dira (gramatika, azterketak, konpletiboa, ulermena...). Hala ere, gai asko eta oso desberdinak bilatzen dituzte erabiltzaileek, eta bilatzaileari eskainiko diogun atalean aztertuko dugu sakonago.

3.2 Atazak

Ikasbil atariaren berrikuntza egin zenean (2011-2012 urteetan), arreta berezia jarri zen alderdi hau garatzeko. Aurreko bertsioan eta HABE paperezkoan ere eskaintzen ziren atazak, baina, oraingoan, hauek bideratu ahal izateko ezarri zen azpiegitura teknologiko guztia. Honela, erabiltzaileek atazak egin, zuzenketak jaso eta ibilbidea gordetzeko modua jarri zen.

Ataza Ikasbil atarian hizkuntza lantzeko jarduera da, zeinetan helburu, bitarteko eta atzeraelikadura zehatza eskaintzen den. Badaude bakarka egitekoak, baina, baita ere, irakasleak ikasgelan egitekoak. Badaude ariketa bakarrekoak, baita hainbat ariketa egituratutan antolatutakoak ere, *sekuentzia* izena hartu ohi dutenak.


Atazak sortzean, zerbitzu berezitua erabiltzen dute editoreek edizio-lana bideratzeko, eta, teknologiaren aldetik, SCORM estandarrean burutzen dira sortzen diren atazak. Honela ziurtatzen da erabilgarri izatea autoikaskuntza-plataforma nagusietan.

Ataza horietan, mota askotako ariketak agertzen dira: testak, egia/gezurra erakoak, hutsuneak bete, loturak, sailkapenak, azalpenak, paragrafoak ordenatu eta idazlana. Ikasbileko atazen bidez, hizkuntza ikasteko alderdi ugari lantzen dira, baina, testuingurua kontuan hartuta, trebetasun hartzaileak lantzekoak nagusitzen dira. Horiekin batera, azpimarratzeko lekua hartzen dute “gaitasun linguistikoak” lantzeko atazek.

3.2.1 Inkesta eta beronen irakurketa

Erabiltzaileei egindako inkestan, balioespen orokorra eskatu zitzaizen atazei buruzko lehen galderan, 0-5 eskalan erantzun beharrekoa. Emaitzak 9. irudian dauzkagu, ehunekoetara ekarrita.

9. irudia:




Positiboa da balorazio orokorra: % 63 dira 4 eta 5 nota ematen diotenak, eta % 5,25 dira balioespen eskasa (0, 1 eta 2) ematen duten erabiltzaileak. Beraz, erabiltzaileek eskertu egin dute Ikasbilen atazak jartzeko egiten den ahalegina, eta egoki ikusten dute aukeratutako bidea.

Era berean, atazen ezaugarri zehatzagoei buruzko balorazioa eskatu zen; horien bidez, atazen ezaugarri buruzko erantzunak bilatzen ziren, editoreen aldetik zalantzak sortu ohi dituztenak.

Ondoren datorren diagraman (10. irudia) bildu ditugu erantzun guztiak. Aurrekoan bezala, 0-5 eskalan eskatu ziren balorazioak, eta erantzunak ehunekotan bilduta datoz.

10. irudia:



Emaitzak positiboak badira ere, ñabardura txikiak azaltzen dira; editoreen ustez, espero zitezkeenak.

- “Entzumena eta irakurmena lantzeko atazak” galderak jasotzen du erantzunik onena. Mota honetako atazak dira Sarearen bidez lantzeko ondoen egokitzen direnak, eta hori nabarmentzen da erantzunetan. Erabiltzaileek ere honelakoan bila jotzen dute, batez ere.
- “Idazmena lantzeko atazak” galderak, berriz, nota baxuagoa jasotzen du. Zuzenketa itxi eta automatikorik ematerik ez dagoenez idazlanetan, erabiltzaileek ez dute asetasun-maila bera jasotzen, eta uste izatekoa da horrelakoak euskaltegian egitea hobesten dutela. Hala ere, ona da inkestaren emaitza.
- “Taldean egiteko atazak” galderak emaitza apalagoa du. Taldean egiteko ariketak berriak dira IKASBILen. Editoreek irakasleei egindako proposamen modura argitaratzen dituzte, helburua ikasgelan erabiltzea baita. Emaitza txarra ere ez denez, elikatzen jarraitu beharreko aukera da.
- “Hiztegia lantzeko atazak”. Balioespen ona jasotzen dute. Lehenak bezala, hauek ere bakarka eta Internet bidez lantzeko ondo egokitzen diren atazak baitira, erantzun itxiak eta zuzenketa automatikoa jartzeko errazten baitute.

- “Instrukzioak”. Atazak egin ahal izateko instrukzioak jarri ohi dituzte editoreek. Hauen inguruan ere izan ohi da eztabaidarik: xehetasunak, luzera, hizkuntza-maila eta abar. Ona da erabiltzaileen iritzia.
- “Azalpen gramatikalak”. Atazei atxikita datozen hizkuntzari buruzko azalpenak epaitzeko eskatzen zitzaaien galdera honetan. Erabiltzaileek uste ona azaldu dute. Gramatikari buruzko eztabaidara itzuliko gara aurrerago, erabiltzaileek zer biltzen duten aztertzen dugunean.

Atazen nolakoa izaten da maiz eztabaidagai Ikasbileko editoreen artean; are, jakin badakigu ezaugarri askoren araberrakoak izan daitezkeela.

- Luzera izango da ezaugarri bat; hau da, urrats bakarrean eta saio bakarrean egiteko atazak, edota urrats asko eta eserialdi asko edo luzea eskatzen diotenak ikasleari.
- Zuzenketa automatikoa izatea edo ez da beste ezaugarri bat; honelakorik ez duten atazek (idazlanek, adibidez) proposamen eta ereduak ematen dituzte soilik, eta zalantza-iturri izan litezke ikasle isolatuarentzat; baina irakaslearentzat interesgarri dira, ikasgelara eramatekoak izan daitezkeen neurrian.
- Talde-lana proposatzen dutenak ere bereziak dira. Hauek, bistan denez, irakasleari zuzentzen zaizkio, ikasgelan eta irakaslearen gidaritzapean burutzeko proposamenak baitira.
- Gramatika lantzeko atazak. Jakina da Internet bidezko atari baten trebetasun guztiak landu daitezkeela, baina jakinagoa da bitarteko hori hobeto egokitzen dela trebetasun hartzaileak eta gramatika bezalako honelakoetan eta ikasle isolatua erosoago ibiliko baita. Gramatikaren kasuan, aski dira azalpena, ariketa eta zuzenketa automatikoa, ikasleak gaitasun horretan aurrera egin dezan.


Ikus ditzagun, beraz, aurreko ezaugarriei buruz inkestan emandako erantzunak (11. irudia).

Erantzun hauek aztertuta, hainbat ondorio atera litezke:

- Atazaren luzera eta konplexutasunari buruzkoak ziren lehen bi galderak. Ariketa-sekuentzia luzeak eta ataza konplexuak ez dira erabiltzaileen gustukoak. Beraz, erabiltzaile gehienek nahiago dituzte ataza sinpleagoak, zeregin jakin eta mugatua dutenak, eserialdi bakarrean egitekoak.
- Talde-lana eskatzen dutenak ere ez dira oso bilatuak. Hemen modurik balego, irakasle eta ikasleen artean nola banatu diren erantzunak jakitea interesgarri litzateke. Mota honetako atazak irakasleek bakarrik bilatuko dituzte; beraz, zentzuzkoa da inkestan aldeko erantzun gutxi jaso izana.
- Idazlana egiteko atazak ere ez dira oso bilatuak. Lehen aipatua dugu: zuzenketarik ez eskaintzea izan liteke azalpena. Izan ere, gauza jakina da ikasleek bilatzen dutela idazlanen gainean nola lan egin. Editoreen artean eztabaidarako gai da hau, eta zuzenketarik gabeko idazlan-lanketa bereziak sortzeko modua aztertu beharko da. Dena den, atariak zuzenketarik eskaini ez arren, proposamena egiterik badago, ondoren irakasleek edo ikaslearen ingurukoek zuzenketak burutzeko.

- Gramatika lantzeko atazek txalo-zaparrada jaso dute. Nola azaldu arrakasta hori, gramatikan ardaztutako didaktikatik ihesi gabiltzanean? Ikasleen pisua ikusi beharko litzateke erantzun hauetan. Ikasleek, oraindik ere, “gramatikan” ikusten dute zailtasun handieneko alderdia. Beste kontu bat litzateke aztertzea zer ulertzen duten hitz horrekin erantzun hori eman duten askok. Baina inkestako datuetatik ezin ditugu erantzun horiek lortu. Beste ikerketa-mota bat eskatuko luke.

11. irudia:



3.2.2 Atazen erabilera, zerbitzariko datuen arabera

Hainbat parametro hartuko ditugu kontuan irakurketa egiteko: atazarik jaitisienak, atazen erabilera-eboluzioa, atazak eta mailak.

Atazarik jaitsienei erreparatuta, 14.549 bisita izan du lehenak eta 8.312 hamargarrenak. Zerrenda horretako lehen zazpi elementuetatik, bostek ez dute ikasteko balio, zein maila duen ikasleak jakiteko dira. Normala izan liteke erabiltzaileek horrelako atazak bilatzea; batez ere, azterketa egin aurreko egoeretan edo ikastaro baten izena eman aurretik. Baina, zalantzarik gabe, ez dira zuzenean ikasteko sortuak (eginaz ikasi daitekeen arren, jakina).

Ondorengo datuek atazek IKASBIL atariko erabiltzaileen artean duten oihartzuna islatzen dute. Datuak 2013 urteari dagozkionak dira.

- Atazak bilatu eta jaisteko irekitzen diren orrialdeak: 928.470.
- Burutzen diren atazak: 273.363.
- Burutzen diren atazetan emandako denbora osoa: 20.000 ordu.
- Atazak burutzean erabiltzaileek egin dituzten ekintzak: 1.440.000.

Garai desberdinetan atazek izan duten bisita-kopurua aztertzen bada, gero eta estimatuagoak direla ikusten da. Honela, azken bi urte hauetako 8 hilabete osoko epe bera hartuz gero, % 40ko hazkundera dago bisitetan.

Kontuan hartzekoa da, inondik ere, atariko atazen kopuruak gora egin duela eta editoreek ahalegin handia egin dutela atazak erakargarriak, baliotsuak eta erraz eskuratzekoak izan daitezen. Datu hauek erakusten digute atazen ildoak sakontzetik etorriko dela Ikasbilen garapena.

3.3 Bilatzailea

Milaka osagai dituen atari bat ez litzateke erabilgarria bilatzaile indartsu bat oinarrian izan ezean. Gainera, Ikasbilen kasuan, kontuan hartu behar da helburu zehatz baterako izan arren, osagaiak ezaugarri oso desberdinak izango dituztela eta erabiltzaileek zehaztasun handiz bilatu behar dituztela. Hau da, bistanekotik has-teko, hasierako mailetan dabilzan ikasle eta irakasleek maila horri dagozkion emaitzak bakarrik nahi dituzte eskaintzen zaizkien bilaketa-emaitzetan.

IKASBIL atariko bilatzaileak bi oinarri ditu:

1. Testuen indexatzaile automatikoa.
2. Editoreen kategorizazio eta etiketatzea.

Bi horien elkarlanaren bidez lortu nahi da egindako bilaketek beti emaitza baliagarriak eman ditzaten eta inoiz ez dadin erakutsi gabe geratu erabiltzailearentzat interesgarri izan daitekeen dokumenturik. Hau da, bilaketen bi agertokirik txarrenek saihestu nahi izan dira: zero emaitza eta zarata.

3.3.1 Testuen indexazio automatikoa

Jakina denez, indexazio automatikoa testu bateko hitz guztiak hartu eta indize batean erreferentziatzen ditu. Testua zer den argitzea da arazoetako bat. Ikasbileko dokumentuetan, idatzizko testuez gain, asko dira entzuteko audio eta bideoak ere. Beraz, emaitzak zehatzagoak izateko eta audio/bideoak ere maila berean gordetzeko, ez dira testu osoak indexatzen Ikasbilen. Hauek dira indexatzen diren dokumentuen eremuak: izenburua, laburpena, gako-hitzak, etiketak.

Lau eremu horiek atariko dokumentu guztiek dituzte, eta, beraz, emaitza orekatuak izan daitezke. Adibidez, idatzizkoetan bada beste eremu bat, dokumentuaren gorputza, indexatu zitekeena, baina entzutekoetan ez legoke horrelakorik, eta emaitzak desorekatu egingo lirarteke.

Indexatzaile automatiko hau lematizatzaile-funtzioaz hornituta dator. Funtzio hau ezinbestekoa da atzizkietan oinarritutako euskararen moduko hizkuntzetan; hau da, indizean gordetzen diren hitzak lema dira, ez hitz osoak. Beraz, Ikasbileko bilatzailearentzat berdinak dira “ama”, “amarentzat”, “amari”...

3.3.2 Gako-hitzak eta etiketak

Editoreek dokumentu berriak igotzerakoan, bi sistema dituzte ezaugarritzeko: gako-hitzak eta etiketak.

Gako-hitzak jartzeko askatasun osoa dute editoreek, nahi dituzten hitzak jar ditzakete; jakina, dokumentua deskribatzeko baliogarriak direnak. Erreduantzia, sinonimoak eta esanahi-mailako hurbilketak jar daitezke. Gako-hitzen eremu hau erabiltzen da, batez ere, “gaia”ri dagokion deskribapena egiteko. Gainera, etike-

ten eremuan agertzen diren hitzen sinonimoak jartzeko ere erabiltzen da.

Etiketak dira aurrez finkatutako hitzak, hierarkia jakin bati dagozkionak eta Ikasbileko editoreek dokumentuak deskribatzeko aukeratu behar dituztenak. Bi multzo nagusitan banatzen dira:

1. Dokumentu-mota finkatzen dutenak: entzungaia, berria, ataza, abestia, denborapasa...
2. Dokumentuen ezaugarri didaktikoak finkatzen dituztenak: maila eta helburu didaktikoak

Maila da etiketa nagusia. Ikasbilen maila ezartzen zaionean dokumentu edo ataza bati, honako hau adierazi nahi da: “maila honetan dabilen ikaslearentzat dokumentu hau interesgarri izan liteke”. Horretarako, hainbat parametro analizatu behar dira: hiztegi-aberastasuna, abiadura, kontzeptualizazio-maila, zarata, egitura linguistikoen konplexutasuna, testuaren luzera, proposatutako jardueraren zailtasuna eta abar.

Helburu didaktikoak dira HABEren HEOC dokumentutik eratorritako etiketak eta ikasleek lortu beharreko gaitasun soziopragmatikoak, testualak, linguistikoak eta estrategikoak deskribatzen dituztenak.


Gako-hitz, etiketa eta testuetatik eratorritako indizeek osatzen dute bilatzailearen muina, eta hainbat modutara aurkezten zaizkio erabiltzaileari: bilatzaile sinplea, bilatzaile aurreratua, etiketa-lainoa eta bilatzaile gidatua. Bakoitzean, testu-kaxa bat eta hainbat aukera eskaintzen dira, emaitza fintzeko filtroen bidez.

3.3.3 Bilatzailearen erabilera

Bilatzailearen ingurukoak izan ziren Ikasbileko erabiltzaileen artean egindako inkestako galdera bi.

Erabiltzen duten ala ez galderari emandako erantzuna, 12. irudian dago jasota

12. irudia:




Erantzun hauetatik, hurrengoa da ondorioa: asko dira bilatzailea erabiltzen ez duten bisitak. Nola aurkitzen dute, orduan, erabiltzaile horiek behar dutena? Bat baino gehiago dira balizko aukerak: besteak beste, zuzenean dokumentuaren helbidea jaso eta bertara jotzen dute, Google edo antzeko bilatzailea, euskaltegiko autoikaskuntza-plataforma, sare sozialak eta blog-orriak.

Ikasbileko atariko orrialde nagusian dagoen zerrenda luzean aurkitzen dute zereginak, eta ez dute aurrerago jotzen. Editoreek ere sumatu dute atarian dagoen birtartean askoz gehiago jaisten dela dokumentu bat.

Bilaketak egiteko moduari buruzkoa zen bilatzaileari buruzko bigarren galdera. 13. irudian ditugu bilduta erantzunak. Bistan dago “maila” dela bilatzeko irizpide nagusia. Atzetik dator “gaia”, baina bilaketa askotan erabiltzen da. “Helburu didaktikoak”, ordea, gutxi samar erabiltzen dituztela diote erabiltzaileek. Hala ere, errealitatea konplexuagoa izango da, zeren eta bilaketa asko konbinatuak baitira; hau da, gaia eta maila bilatzen da, edota helburu didaktikoa eta maila.

13. irudia:



Inkestako datu hauek aldera ditzagun orain zerbitzariak bilaketei buruz ematen dizkigun datuekin, esanguratsuak baitira. Adibide gisa, 2014ko urtarrilaren 12tik 26ra bitarteko datuei erreparatuta, 25.778 bisitetatik 7.224 dira bilaketa egin dutenak (% 28). Bestela esanda, % 70 zuzenean etorri da edukira, edo ataritik hartu du behar izan duen edukia. Bisiten ordean, erakutsitako orrialdeak aztertuz gero, antzekoa da emaitza. Beraz, bilaketak egin eta ondorengo filtroak jarri, eta zerrendak hobetzen dira.

Erabiltzaileek zer bilatzen duten jakitea da edozein web-ataritako kudeatzaileek aztertu beharreko gaia. Jakina, asko dira bilaketan erabiltzen dituzten “terminoak”, eta luze joko luke horren azterketa zehatza egiteak. Zertzelada batzuk ematearren, zerbitzariak emandako datuak bat datoz inkestan azaltzen denarekin, alegia: maila da ikasmateriala bilatzeko erabiltzen den irizpide nagusia. Halaber, helburu didaktikoak datoz ondoren, bilaketen herena bideratzen dute. Beraz, didaktika edo hizkuntzaren inguruko kontzeptuen bilaketek leku nabarmena dute, espero zitekeenez. Gako-hitzak datoz ondoren hamar bilaketatik bat dela badio ere aurreko taulak, gehiago izango dira. Izan ere, taula hauetan bilaketen % 58 bakarrik daude, errepikatuenak. Ondoren datozkeen % 42 horretan errepikatzen ez diren bilaketak egongo dira, eta horien artean gako-hitzak izango dira nagusi.

Bestalde, gako-hitzen artean, didaktikaren eta hizkuntzaren gaineko kontzeptuak daude, erabiltzaileak etiketen artean bilatu orde zuzenean gako-hitzen kutxan jarri dituenak.

Bilaketa baten ondoren zer gertatzen den ere adierazten digute zerbitzarietako datuek:

- Bilaketa egin ondoren, ezer egin gabe alde egiten duten bisitariak: % 11.
- Bilaketa baten ondoren, bilaketa findu egiten duten bisitak: % 26.
- Bilaketa ondoren bisitariak zabaltzen dituzten orriak (batez bestekoa): 3,32.


Beraz, esan daiteke Ikasbil atariak eskaintzen dituen bilaketa-sistemak modu eraginkorrean erabiltzen direla; bilaketa asko egiten dira eta aurrez ikusitako parametroak eraginkorrak dira. Ezin izango ditugu guztiak aztertu.

3.4 Liburutegia, baliabideak, euskaltegiak eta berriak

Jakina denez, atariak jardura didaktikoez gain, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu. Honako hauek dira nagusiak: Berriak (sektorearen intereseko albisteak), Euskaltegiak (euskaltegien informazioa eta komunitateak), Liburutegia (HABeko liburutegiari buruzko informazioa eta katalogorako esteka, katalogoa Jaurlaritzaren beste atari baten bidez kontsultatzen da) eta Baliabideak (HABEk argitaratu dituen ikasmaterial eta aldizkarien bilduma).

Zerbitzu hauei buruzko iritzia ere eskatu zitzaion erabiltzaileei inkestaren bidez. 14. irudian dauzkagu erantzunak, 0-5 arteko eskalan:

14. irudia:



Zerbitzariko datuen arabera, aurreko atal horiek bisita hauek jasotzen dituzte, atariko bisita guztiekiko ehunekotan azalduta:

- Berriak: % 1,33 (Kontuan hartu atarian zuzenean, klikatu gabe, irakur daitezkeela titular nagusiak).

- Liburutegia: % 1,25 (HABEren liburutegiko katalogoa beste helbide batean ere ikus daiteke).
- Baliabideak: % 1,71.
- Euskaltegietako informazioa: % 0,57.

Zenbateko hauek aurrekoekin alderatuz gero, txikiak ematen badute ere, kontuan hartu behar da ez direla mota bereko produktuak hauek eta aurrekoetan eskaintzen direnak. Bakoitzak beregain du zentzua eta helburua.

4.- Balorazio orokorra

Ikasbileko erabiltzaileei egindako inkestan, bazegoen balioespen globala eskatzen duen galdera, eta 800 erantzun inguru jaso ziren bertan. Honako hau izan zen galdera zehatza: “Orokorrean, Ikasbil euskara ikasteko/irakasteko baliabide lagungarri gisa 0-5era baloratu”, eta 15. irudian daude erantzunak laburbilduta.


Balioespen-erantzun guztien batez bestekoa, berriz, hau da: 3,90. Datu hauen aurrean geure iritzia oso baikorra da. Erabiltzaileek nota orokor altua ematen diote IKASBIL atariari. Beraz, gure ondorioa da zerbitzu baliagarria eskaintzen diola atariak euskara ikasten eta irakasten ari den komunitateari. Jakina, bada zer hobetua, badira arazoak, badira birpentsatu beharrekoak, baina erantzun horiek erakusten dute Ikasbilen bidea egokia dela.

Zenbakizko balorazioez gain, idatzizkoak ere jaso ziren inkestan. Eredu irekia zen, eta bertan nahi zutena idatz zezaketen inkesta-erantzuleek. Balorazio orokorrari zegozkion azalpen interesgarriak bezain baliagarriak jaso genituen. Hona hemen adibide batzuk.

- *“Egunero bisitatzen dut eta lagungarria da nire klaseak prestatzeko! Zorionak eta segi aurrera!”*
- *“Oso tresna egokia dela uste dut; material ugari eskaintzen du, eta erabilera ere anitza izan daiteke Horren guztiaren atzean lan handia dagoela igertzen da”*.
- *“Egindakoa lan ederra da Zorionak!”*
- *“Aurten izan da nire lehengo urtea, hasieran kostatzen ziren zait, baina orain oso pozik nago jarraitu horrela”*.
- *“Egungo testuak klaseratzeko ezinbesteko tresna iruditzen zait eta gainera, sekuentzietan ariketa bilduma ere eskaintzen denez, zer gehiago eskatu behar zaio? Segi horrela!”*
- *“4 mailako edukiak urriak dira eta oso material berri gutxi jartzen duzue Horrez gain, ariketa asko ez dira mailarako egokiak eta testu gehienak astunak dira Gainera, gaiak errepikakorrak dira. Webguneari dagokionez, bilatzailea oso txarra da; askotan, lehenago topatzen ditut gauzak kanpoko bilatzaile batean bilatuta Ikasbilekoan bilatuta baino”*.
- *“Orokorrean ondo dago, baina batzuetan behar dudana bilatzea kostatzen zait Askotan aldatetak daude, beraz aldateta batzuk hobetzen dira baina beste batzuetan okerrago daudela iruditzen zait”*.

- “Lehen zegoen moduan askoz errazago aurkitzen nituen atazak eta behar nuena”.
- “Hobetu beharreko zenbait gauza baina klaserako lagungarria”
- “Materiala eskuragarri izateko oso baliabide egokia. Edukiak direla eta, ordea, zer hobetu izan ahal du Denborak egingo du bide”.
- “Oso tresna egokia da bai klaseko jardunari begira, bai ikasleak bakarka egiteko, bai behin euskaltegia utzita, irakurgai eta entzungai egokiak topatzeko Irakasle naizen aldetik asko erabiltzen dut eta saiatzen naiz ikasleak ere erabileran trebatzen. Eskatzen hasita, dokuteka eta atazak atalak bilaketa bakarrean arakatzeko aukera eskatuko nuke”.
- “Plataforma eta tresna oso erabilgarria iruditzen zait. Erreza eta komodua”.
- “Oso baliagarria deritzot baina batzutan gauzak bilatzeko pixkat liosoa da”.
- “Orokorrean oso erabilgarria deritzot eta baita erabiltzeko erraza ere”.

15. irudia:



5.- Hobekuntza-ildoak

Inkesta, datu eta analisi hauetan oinarrituta egin beharko dira aurrerantzean Ikasbil atariaren egokitzapena, berrikuntzak eta hobekuntzak. Atariaren jarraitzaile zintzoek ohartuta izango dira atariak etengabeko aldaketak izan dituela. Aldaketa hauek, ordea, neurri txikikoak izan dira: edukien antolaketa, lehen orriko atalen diseinua eta eduki berrituak.

Datozen lerroetan, Ikasbil ataria elikatzen duen taldeak aurreikusten dituen aldaketak azalduko ditugu. Oraingoz, asmoak dira, pixkanaka gauzatuko ditugunak. Alor desberdinei dagokie: edukia, diseinua, teknologia berrietara egokitzea eta zerbitzuen integrazioa.

5.1 Eduki-mailako hobekuntza-ildoak

5.1.1 Hasierako mailetarako dokumentu eta atazak.

Aurrez agertutako datuetan, argi ikusten da A1, A2, B1 eta C2 mailetako materialetan urri samar dabilela gure ataria. Izan ere, atariaren abiapuntua oso lotuta zegoen komunikabide eta HABE aldizkariko edukiei, eta, jakina, bertako corpusa ez da erabilgarria izaten hasierako maila horietan. Beraz, HABEren asmoa da esparru horretarako material berezitua sortzea: bideoak, audioak eta atazak.

5.1.2 Ikastaro irekiak indartzea.

AISA ikastaroaren ildotik (Zubizarreta, 2013), *Murgilduz* eta *Dendaketan* izeneko ikastaroak argitaratuko dira. Lehena B2 maila inguruko ikasleei zuzendua eta, batez ere, idatzizko trebetasunak lantzekoa. *Dendaketan*, ordea, hasiera-mailan dabilzan ikasleei zuzendutako ikastaroa izango da, eta dendariantzat bereziki sortua. Ikastaro honen berrikuntza nagusia izango da *jolas didaktiko* edo *jolas serioen* moldean eskainia izatea. Berritzailea, beraz, eta ikasleen motibazioa jolasaren bidez sustatu nahi duena.

5.1.3 Beste

Gainera, beste arlo hauek ere indartu nahi dira:

- Helburu didaktiko zehatzetarako atazak sekuentzia konplexuetan antolatutak eskaintzea, mikro-ikastaroen antzera.
- HABE aldizkariaren hemeroteca guztiaren digitalizazioa.

5.2 Diseinu-berrikuntzak

Ikasbil bezalako Interneteko atarietan, diseinu-mailako berrikuntzak maiz burutu ohi dira. Badirudi bi edo hiru urteren buruan guztiak zahar-kutsua hartzen duela. Beraz, irudia eta atalen antolaketa berrituko dira. Horren bidez, erabiltzaileen aldetik estimazio handiena jaso duten ataletara iristeko modua azkartuko da, eta erabiltzaileen esperientzia hobetuko.

5.3 Teknologia berrietarako doikuntzak

Ikasbileko erabiltzaileen usadioen azterketako datuek erakusten dute gure komunitateak hurbiletik jarraitzen diela teknologien berrikuntzei. Indartzen ari den joera nagusia telefono eta tabletaren bidezko nabigazioa da; adibide gisa, 2014ko urtarileko datuen arabera, % 10 inguru dira jada eskukoa eta tableta erabiltzen dutenak Ikasbilen nabigatzeko. Areago oraindik, bikoiztu egin da urtebetean gailu mugikorretik Ikasbilera datozen bisitak.

Joera hori ikusita, 2014ko urtarrilean doikuntzak egin dira atarian, mugikorretik eskuragarriago egon daitezen edukiak. Bide honetan sakondu eta aurrera jo beharko da; batez ere, bideoen inguruan egokitzapenak egin beharko dira, gailu hauek aspaldiko bideoak (flv artxiobotan daudenak) ikus daitezen.

5.4 IKASTEN eta IKASBIL zerbitzuen integrazioa

Hasieran adierazi dugun bezala, HABEk Ikasten eta Ikasbil atariak erabiltzen ditu zerbitzu didaktikoak burutzeko. Biak elkarren osagarri dira; Ikasten plataforman *ikastaroak* dira oinarritzko unitateak, eta horien inguruan dihardute ikasle eta irakasleek (euskaltegietan antolatuta). Ikasbil atarian, berriz, ikasmateriala da unitate oinarritzkoa (dokumentuak, atazak...).

Bistakoa denez, IKASBIL atariko ikasmateriala oso egokia da, ikasleen erabilera autonomoa sustatzeko eta, horretaz gain, irakasleek ikastaroetan txerta ditzaten. Honela egiten dute irakasle askok: Ikasbiletik hartu ikasmateriala, eta aurrez aurreko nahiz bestelako ikastaroetan txertatu ikasmateriala. Alabaina, arazo larri bat du gaur egun erabiltzen den bideak, ikasmaterial horien erabilera didaktiko egokia egin ahal izateko; bidea korapilatsua izaki, lan handia eskatzen baitu.

Hau guztia kontuan izanda, Ikasbil atariko ataza guztiak Ikasteneko irakasle guztiek erraz txertatzeko modua jarriko da, horretarako inolako eskaerarik egin gabe. Horrela, irakasleek bilaketa-sistema bat izango dute Ikastenen bertan, zeinak ahalbidetuko dien Ikasbileko ataza guztien artean bilatzen dutena beraien ikastaroko leku jakin batean txertatzea.

Oharrak

1. EJIE, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkar-
tea. <http://www.ejie.euskadi.net/y79-01/eu>
2. http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_FLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=1263725
3. http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_FLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=1298626
4. http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_FLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=1298626

Bibliografia

- HABE, Council of Europe. 2005. *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. (Jatorrizkoa: Europako Kontseilua. 2001. *Common European Framework for Languages: Learning, Teaching, Assessment*)
- Lopetegi, E. eta Isasa, E. 2013. “Ikasbil 2.0, euskara-ikasleen elkargunea” *Hizpide*, 81: 47-63.
- Zubizarreta, X. (2013). “AISA online ikastaroa” *Hizpide*, 80: 68-78.